

Salmentek Euskal AEko Merkatu-zerbitzuen sektorean % 11,8 egin dute gora, 2022ko hirugarren hiruhilekoan


Ostalaritza eta Garraioa eta biltegiatzea dira hazkundearen buru (% 19,5 eta % 17,6, hurrenez hurren)

Euskal AEko *Beste merkatu zerbitzu batzuk* sektorean salmentek % 11,8 egin dute gora 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan eta egutegiko ondorioak alde batera utzi ondoren, Eustaten datuen arabera. Sektore horretan, Ostalaritza, Garraioa eta biltegiatzea, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzu-jarduerak sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio finkoetan eta urtaroko ondorioak alde batera utzi ondoren, salmentek % 1,0 egin dute gora, 2022ko hirugarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Beste merkatu zerbitzu batzuk sektorean, benetako salmenten urte arteko berreskurapena (prezio finkoetan) orokortua izan da urteko hirugarren hiruhilekoan, *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektorean izan ezik, % 0,6 egin batitute behera. Salmentek gora egin dute, 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin

alderatuta, honako sektore hauetan: *Ostalaritza* (% 19,5), *Garraioa eta biltegiatzea* (% 17,6), *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* (% 10,4) eta, azkenik, *Informazioa eta komunikazioak* (% 6,7).

2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, igoera ikusi da, era berean, sektore guztien salmentetan, *Ostalaritza* izan ezik, % 2,9 egin baitu behera. Hala, salmentek % 1,5 egin dute gora hiruhilekoen arteko terminoetan *Garraioa eta biltegiatzea* sektorean, % 0,9 *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* sektorean, % 0,5 *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektorean eta, azkenik, % 0,4 *Informazio eta komunikazioetan*.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Beste merkatu zerbitzu batzuk. Behin-behineko datuak. 2022/III

	Prezio finakoak		
	Indizea	t / t-4	At / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	11,8	1,0	13,2
Garraioa eta biltegiatzea	17,6	1,5	17,7
Ostalaritza	19,5	-2,9	31,5
Informazioa eta komunikazioak	6,7	0,4	6,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-0,6	0,5	-1,5
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	10,4	0,9	11,5
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	11,0	2,2	13,0
Bizkaia	11,9	0,3	14,3
Gipuzkoa	11,9	1,7	11,3
EMPLEGUA	-0,4	-0,1	0,2

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Azaroaren 16a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan % 11,9ko urte arteko igoera izan da salmenten indizean eta, Araban, % 11,0koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera izan da, era berean, hiru lurraldeetako salmentetan: Araban, % 2,2; Gipuzkoan, % 1,7, eta Bizkaian, % 0,3.

Euskal AEn zerbitzu horietan lanean ari diren langileen indizeak behera egin du % 0,4 2022ko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan, eta % 0,1, hiruhilekoen artekoan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **94,1eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62